

KONTINGENTZIA-PLANA LAKUNTZAKO SAN SAASTIN MUSIKA
ESKOLAREN ESKOLA-JARDUERARAKO

2020-2021eko IKASTURTEA

AURKIBIDEA

Segurtasun-, higiene- eta osasun-neurriak	2
ANTOLAKETA OROKORRA: barnejoan-etorriak eta eraikinerako sarbidea	4
ANTOLAKETA: Maskararen erabilera eta beste babes-neurri batzuk	5
MAILEGU-INSTRUMENTUAK edota partekatzekoak: osasun-neurriak	5
ANTOLAKETA OROKORRA: irakasleak	6
TALDEKO IRAKASGAIEN ANTOLAKETA: MUSIKA-HIZKUNTZA ETA KORUA	6
ESKOLAKO INSTRUMENTU- ETA AHOTS-TALDEEN JARDUERAREN ANTOLAKETA	7
I. ERANSKINA: Protokoloa, Covid-19 kasu baten aurrean	8

KONTINGENTZIA-PLANA SAN SAASTIN MUSIKA ESKOLAREN E **SKOLA-JARDUERARAKO**

2020-2021eko IKASTURTEA

San Saastin Musika Eskolako Covid-19aren Kontingentzia Plana lankidetzan eratu da Lakuntzako Udalarekin eta Musika Eskolako Zuzendaritzarekin.

Plan honek Eskolak bere jarduna gauzatzeko ezarri dituen higiene- eta antolaketa-neurriak jasotzen ditu, betiere bat etorrita osasun- eta hezkuntza-protokoloekin, Eskolako ikasleei eta langileei testuinguru segurua eskaintzeko xedez, aurrez aurreko eskola-jarduna abiatzeko.

Kontingentzia Plana Lakuntzako Udalaren webgunean argitaratu eta behar beste zabalduko da irakasle, familia, ikasle eta administrazioko, zerbitzuetako eta garbiketako langileen artean. Edozein zalantza argitu edo kontsulta egiteko Kontingentzia Planari buruz, erabiltzaileek hona idazten ahalko dute: info@lakuntza.eus edo musikaeskola@lakuntza.eus

Kontingentzia Planak ezartzen dituen neurriak berraztertutako, aldatu eta areagotu litezke osasun-egoeraren bilakaerak halakorik eskatuko balu, betiere osasun eta hezkuntzako agintariek unean-unean ezarritaketen irizpideen arabera.

Aurrez aurreko hezkuntza-jardura 2020-2021eko ikasturtean garatzeko Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak argitaratu duen prebentzio- eta antolaketa-protokoloak ezarritakoarekin bat, Plan honetan finkatu diren neurriak bi ardatz nagusiren inguruan egituratzen dira: gune eta pertsonen antolaketa eta higiene-neurriak.

- Segurtasun-, higiene- eta osasun-neurriak

1. Eskolaren erabiltzaile guztiek (irakasleak, ikasleak, garbitasuna, mantentze-lanetako eta zerbitzu orokorretako langileak), beren adina edozein delarik ere, maskara erabili beharko dute Eskolan dauden denbora osoan, eta Eskolara ezin izanen da sartu maskara jantzi gabe.

2. Maskara erabiltzetik salbuetsita daude hala abuztuaren 28ko 40/2020 Foru Aginduan nola osasun-agintariak Kontingentzia Plana argitaratu ondoren onets litzaketen araudietan deskribatutako kasuak.
3. Halaber, eraikinera sartzerakoan eskuak nahitaez desinfektatu behar dira. Xede horretarako, Eskolak gel-banagailuak jarriko ditu.
4. Ezin izanen dira ikastetxera sartu COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak, ezta eritasuna diagnostikatu zaien pertsonak ere, agindutako isolamendu-aldia bukatu ez badute, edo etxeko berrogeialdian dauden pertsonak, COVID-19aren sintomak edo diagnostikoa izan duen pertsonaren batekin kontaktu estua izan dutelako.
5. Temperatura hartzea ezin izanen da orokortu, Covid-19ari aurre egiteko prebentzio-neurri gisara.
6. Ez da gomendatzen eskularruak erabiltzea, honako kasu hauetan izan ezik: azal atopikoa, psoriasis eta bestelako azal-gaitzak dituztenen kasuan, eskuak maizegi garbitzea kontraindikaturik badute.
7. Ikasgela bat prestatuko da Covidarekin bateragarri diren sintomak dituzten pertsonak bertan isolatzeko, Hezkuntza Departamentuaren Protokoloarekin bat.
8. Ikasgelaz aldatzeko uneetan, hura banakakoa nahiz taldekoa izan, eskola amaitu duten ikasgelako ikasleek ez dute kointzidituko hasi behar dutenekin. Ikasleak korridorean egonen dira zain, eta ez ikasgelan edo auditorioan.
9. Ikasleak eta irakasleak elkarlanean arituko dira eskolan erabilitako mahaia, aulkiak, atrilak eta bestelako objektuak garbitu eta desinfektatzeko lanetan. Horretarako, taldeko ikasgeletan biruzida bat egonen da 6 ikasleren multzo bakoitzeko, bai eta papera ere.
10. Eskolen artean zenbait minutu pasatzen utziko da ikasgela aireberritzeko.
11. Bakarrik irakasleek ahalko dute leihoak eta ateak ireki eta itxi, bai eta argi-giltzei edo bestelako gailuei eragin ere.
12. Ahalik eta tarte handiena gordetzen saiatuko da lehen lerroaren eta irakaslearen lan-eremuaren artean. Beharrezkoa den kasuetan, babes-manpara bat jarriko da irakaslearen mahaian.
13. Ezin izanen da materiala partekatu taldeko eskoletan.
14. Ez da ez kontzerturik ez entzunaldirik eginen. Nolanahi ere, jarduera horiei berriz ere helduko diegu osasun-egoerak ahalbidetzen duenean eta

beharrezko segurtasun-neurriak hartuta.

15. Igogailua ahalik eta gutxien erabiliko da eta ahal dela eskailerak erabiliko dira. Igogailua ezinbestean erabili behar izanez gero, gehienez lagun bat sartuko da, salbu eta laguntza behar duten pertsonen kasuan; izan ere, halakoetan laguntzaileek ere erabiltzen ahalko dute. Igogailua erabiltzen dutenek maskara eraman beharko dute eta segurtasun-distantzia gorde.
16. Irakasleei eta administrazioari zein zerbitzuari jakitera emanen zaie zer protokolori jarraitu behar zaion Covid-19aren kasuetan. Protokolo hori Kontingentzia Plan honen I. eranskinean kontsultatu daiteke.

– ANTOLAKETA OROKORRA: barne joan-etorriak eta eraikinerako sarbidea

1. Ahalik eta gehien mugatuko da eskolaz kanpoko jendearen presentzia, betiere irakasleak, ikasleak eta administrazioari, mantentze-lanetako eta zerbitzu orokorretako langileak Eskolako langiletzat ulertuta.
2. Gurasoak ez dira eraikinerara sartuko. Zenbait irakasleak ikasleei esanen diete non dauden beren ikasgelak, batez ere ikasturteko lehen egunetan.
3. Aita, ama edota tutoreei ahal dela telefonoz edo telematikoki emanen zaie arreta, eta hori ezinezkoa bada, aurrez hitzordua eskatu beharko dute eta bileran maskara jantzi eta segurtasun-distantzia gordeko dute.
4. Mesedez eskatzen diegu gurasoei eta ikasleei puntualtasuna zorrotz betetzeko: ez iritsi eraikinerara ez oso goiz ez berandu, barneko joan-etorriak errazte aldera.
5. Zenbait zirkuitu ezarriko dira, elkarrengandik bereizita, eraikinaren barnean mugitzeko, hala iristeko eta irteteko nola irakasgaiez aldatzeko.
6. Gune komunetan jende-pilaketarik ez izateko eta aldi berean ez ibiltzeko, taldeko ikasgeletan ordutegiak antolatuko dira sarrerak eta irteerak modu mailakatuan egiteko. Horregatik, bada, senideak ezin izanen dira eskolara sartu ikasleak jasotzera. Irteeran zain geratuko dira.
7. Ikastetxearen barruan ahalik eta joan-etorri gutxien egingen dira, eta une orotan maskara erabiliko da.
8. Joan-etorrietan ez dira ukitu behar gune komunetako objektuak eta tresnak, hala nola eskudelak, mahaiak, aulkiak eta abar.

– **ANTOLAKETA: Maskararen erabilera eta beste babes-neurri batzuk**

1. MASKAREN ERABILERA: Ikasle guztiek maskara jantzita joan beharko dute Eskolara eta jarrita edukiko dute Eskolako jardunak dirauen bitartean, salbu eta haize-instrumentuen kasuan, zeinentzat distantzia- eta babes-neurri berariazkoak ezarriko baitira. 6 urtetik beherako ikasleak ez da beharrezkoa.
2. Maskara erabiltzea bateraezina izanez gero jardueraren bat egitearekin, ezarritako gutxieneko distantzia gorde beharko da ezinbestean.
3. Ezin baita aldi berean maskara erabili eta haize-instrumentu bat jo, honako neurri hauek hartu dira:
 1. Segurtasun-distantzia
 2. Instrumentua ez da irakasleari begira jarriko.
4. Neurriak piano-eskoletarako
 1. Gel hidroalkoholikoa eman
 2. Instrumentua desinfektatzaileaz garbitu eskolen artean, erabilera bakarreko paperaz edo botatzeko zapiez baliatuta.

– **MAILEGU-INSTRUMENTUAK edota partekatzeak: osasun-neurriak**

1. Eskolan MASKARA JANTZITA erabiltzekoak
 1. Pianoak
 1. Likidoa lainoztatu eta paperaz garbitu erabili aurretik eta ondoren
 2. Bateria, Baxu elektrikoa,
 1. Eskuak desinfektatu erabili aurretik eta ondoren (hidroalkohol banagailua ikasgelan)
 2. Maskara
 3. Ez partekatu baketarik
 3. Mikrofonoak
 1. Erabiltzaileak maskara jantzita eraman behar du
 2. Erabiltzaileak mikrofonoa lainoztatuko du spray biruzida batez hura erabili ondoren

- ANTOLAKETA OROKORRA: irakasleak

1. Irakasleen gelan eskuragarri egonen dira maskarak, hidrogela, papera eta spray biruzida hori erabiltzekoa baita irakasle bakoitzaren lanaldirako objektuak hartu aurretik eta ondoren.
2. Fotokopiagailua erabiltzeko txandak egingen dira, eta aholkua ematen zaie irakasleei materialak prestatzeko eskolak hasi baino lehenago, eskola-orduetan ahalik eta joan-etorri gutxien egiteko eraikinean.
3. Arrisku taldekoak diren langileek harremanetan jarri behar dute Lakuntzako Udaleko Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuarekin.
4. Irakasleek eguneroko kontrola eramanen dute irakasgai guztietarako bertaratzeen gainean.
5. Eskolako lehen egunetan, irakasleek azalpenak emanen dizkiete ikasleei honako hauei buruz: sarrera- eta irteera-ordutegiak, gune komun erabilera eta dagozkien ibilbideak zein sartu eta irteteko ordutegiak. Halaber, aplikatu beharreko osasun- eta higiene-neurri guztien berri emanen zaie, batez ere segurtasun-distantzia, maskararen erabilera, eskuen garbiketa eta gelaren erabilerari dagozkienak.
6. Ikasleak eta irakasleak elkarlanean arituko dira eskolan erabilitako mahaia, aulkiak, atrilak eta bestelako objektuak garbitu eta desinfektatzeko lanetan. Horretarako, taldeko ikasgeletan biruzida bat egonen da 6 ikasleren multzo bakoitzeko, bai eta papera ere.
7. Eskolako zuzendaritzak erreferentziazko pertsona batzuk izendatuko ditu irakasleen artean covid-19rako, eta horiek laguntza emanen dute enkargatzen zaizkien kontrol-zereginetan.
8. Instrumentuko edo taldeko eskoletan irakasleek manipulatu beharko balute ikasleen instrumenturen bat afinatzeko edo doitzeko, egin aurretik eta ondoren desinfektatuko dituzte eskuak.

- TALDEKO IRAKASGAIEEN ANTOLAKETA: MUSIKA-HIZKUNTZA ETA KORUA

1. Taldeak ohiko ikuspegi pedagogikoak aplikatuta antolatuko dira, kontuan harturik maila eta adina, hizkuntza eta ikasleek beren ikastetxeetan dituzten irteera-ordutegiak.
2. Musika-hizkuntzako eta Koruko talde bakoitza "elkarbizitzako talde iraunkor" bat izanen da.

1. Ez dira jarduerak antolatuko, horiek talde ezberdinetako ikasleen arteko kontakturik sortzen badute.
2. Musika-hizkuntzako ikasleek ez dute taldeetan parte hartuko, epidemia-egoerak kontaktu handiagoa ahalbidetzen ez duen bitartean talde ezberdinetako ikasleen artean.
3. Musika-hizkuntzako ikasgela guztietan gel hidroalkoholikoa egonen da erabilgarri, bai eta spray biruzida zein papera ere, mahaia, aulkiak eta talde ezberdinetako ikasleek partekatzen dituzten bestelako objektuak desinfektatzeko.
4. Musika-hizkuntzako eta Koruko ikasgelak irekita egonen dira eskola-ordu guztietan.
5. Ikasleek eta irakasleek maskara erabili beharko dute derrigorrean eskola-ordu guztietan.
6. Ikasgeletan, 1,5 metroko tarte bermatuko da ikasleen artean zein irakaslearen eta ikasleen lehen lerroaren artean.
7. Eskola bakoitza amaitutakoan, ikasleek eta irakasleek elkarlanean desinfektatuko dituzte, biruzidaren soluzioaz, aulkiak, mahaia eta gainerako taldeekin partekatzen diren objektuak.
8. Liburuak, partiturak eta inprimaturik dagoen gainerako materiala pertsona batek banaka erabiltzekoak dira.

- ESKOLAKO INSTRUMENTU- ETA AHOTS-TALDEEN JARDUERAREN ANTOLAKETA

1. Maskara entsegu osoan zehar erabili behar da.
2. Zuzendariak zorrotz eta bereziki gordeko du segurtasun-tarteak.
3. Talde bakoitzak "elkarbizitzako talde iraunkor" gisa funtzionatuko du. Ez da antolatuko bandak, koruak edo orkestrak elkartzea eskatzen duen jarduerarik.
4. Besterik esan arte, ez da egingen publikoa duten kontzerturik.
5. Egoera epidemiologikoak horretarako biderik eman ez gero, kontzertuak egin litezke, betiere eszena- zein musika-jardueretarako berariaz ezarritako osasun-arauak betez.
6. Entsegu bakoitza amaitutakoan, ikasleek eta irakasleek elkarlanean desinfektatuko dituzte, biruzidaren soluzioaz, aulkiak, atrilak eta gainerako taldeekin partekatzen diren objektuak.
7. Ez da atrilik partekatuko. Musikari bakoitzeko atril bat erabiliko da.
8. Partiturak eta inprimaturik dagoen gainerako materiala pertsona batek banaka erabiltzekoak dira.

9. Talde bateko ikasle-ratioa murriztu behar izanez gero, hori erreperitorioaren arabera banatzen ahalko da, atalka edo musika-harika.

I. ERANSKINA: Protokoloa, Covid-19 kasu baten aurrean

Honela jokatu beharra dago ikasle bati edo Eskolako langile bati COVID-19aren berezko sintomarik antzemanaz gero (eztutik lehorra, sukarraldia, eztarriko mina eta nekea; eta kasu batzuetan usaimena eta dastamena gutxitzen dira, hotzikarak, eztarriko mina, giharretako mina, buruko mina, unadura orokorra, beherakoa edo gonbitoak ere ager daitezke):

Jarraibideak:

Ez dira Eskolara joanen COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasleak, irakasleak eta bestelako profesionalak, ez eta COVID-19aren diagnostikoagatik isolamenduan dauden pertsonak eta etxeko berrogeialdian daudenak ere, COVID-19aren sintomak edo diagnostikoak dituzten pertsonekin harreman estua izan dutelako. Eskolako ikasle edo langile bat sintomekin hasten denean, edo eskolako langileek hala sumatzen dutenean beren lanaldian, pertsona hori espazio bakandu batera eraman behar da. Eskolak aldeztu aurretik aukeratutako banakako erabilerako gela batera eramanez da pertsona hori. Familiari abisua emanen zaio eta esan harremanetan jarri behar dela osasun-zentroarekin edo Nafarroako Foru Komunitatearen erreferentziazko telefonoarekin (948 290 290), kasua ebaluatzeko.

Sintomekin hasten diren langileak ere eremu bakandu batera joanen dira; ikasleendako eremuaren antzeko ezaugarriak eta ekipamendua izanen ditu, eta han maskara kirurgikoa jantziko dute. Harremanetan jarriko dira haien osasun-zentroarekin, Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuarekin edo Nafarroako Foru Komunitatearen erreferentziazko telefonoarekin (948 290 290), eta haien jarraibideak beteko dituzte. Sintomak arratsaldean agertuz gero, geroago horren berri emanen zaio Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuari.

Tenperatura hartzen ahalko zaie gela espezifiko horretara bideratu diren pertsonen bakarrak. Tenperatura hartzea ezin izanen da inoiz orokortu, Covid-19ari aurre egiteko prebentzio-neurri gisara.

Ikusten bada sintomekin hasi den pertsona egoera larrian dagoela, edo arnasa hartzeko zailtasuna duela, 112ra deitu behar da.

Ikastetxeko arduradunek ikaslearen lege-ordezkariei gogoraraziko diete jarraitu beharreko prozedura: kontaktu fisikoak saihestea eta dagokien Lehen Arretako Zentroarekin kontaktuan jartzea hura jardunean ari den ordutegian, edo erreferentziazko Herriarrendako Arreta Telefonora deitzea (948290290).

Pertsona bakandua egon den zaintza-gelan sakoneko garbiketa egingen da, gutxienez 5 orduko denbora-tarte batez itxoin ondoren.

Inor ezin izanen da ikastetxera sartu alta medikoa izan arte. Ikasleek horren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.